

Azkeneko igandea Urtean Zehar (C)

**JESU KRISTO GURE JAUNA,
DIREN GUZTIEN ERREGEA**

Festaburua

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Seme maitea, diren guztien Erregea,
gauza guztien oinarri eta buru ezarri zenuen;
egizu, izaki guztiek,
bekatuaren uztarritik askatuta,
beti eta beti Zu zerbitza zaitzatela eta goretsi.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Sm 5, 1-3

Dabid Israelgo errege gantzutu zuten.

Samuelen liburutik

Egun haietan, Israelgo leinu guztiak etorri ziren Dabidengana Ebrona, eta esan zioten: «Zure hezur eta zure mami gaituzu. Lehendik ere, Saul errege zela, zu zintuen gidari Israelek bere joan-etorrietan. Gainera zuri esana dizu Jaunak: "Zu izango zaitu nire herri Israelek bere artzain, zu izango zaitu buru Israelek"».

Etorri ziren, beraz, Israelgo zahar guztiak erregerengana Ebrona. Dabid erregek elkargo egin zuen haiekin Ebronen Jaunaren aurrean, eta Dabid Israelgo errege gantzutu zuten.

ERANTZUN SALMOA: Sal 121, 1-2. 4-5

R/. Bagoaz pozik Jaunaren etxera.

Hura poza nirea, esan zidatenean:
«Bagoaz Jaunaren etxera!»
Oraintxe gure oinak iritsi dira,
Jerusalen, zure atarira. R/.

Leinuak, Jaunaren leinuak, hara igotzen dira,
Israelen lege denez Jaunaren izena ospatzera.
Han dago jarriarik auzi-mahaia,
Dabideneko mahaia. R/.

II. IRAKURGAIA: Kol 1, 12-20

Bere Seme maitearen erreinura aldatu gaitu.

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Senideok:

Pozez eskerrak ematen dizkiogu Aita Jainkoari,
argian santuen oinordelagun egin gaituenari.
Ilunbearen menpetik atera baikaitu,
eta bere Seme maitearen erreinura aldatu.
Honengan dugu erospena,
Honengan bekatuen barkamena.
Hau, Jainko ikustezinaren irudi da,
sorkari guztietan lehen semea.
Beronen bidez baitira eginak gauza guztiak,
zeru-lurretakoak, ageri direnak eta ez direnak:
Aulki, Jaun, Nagusi eta Agintedunak;
gauza guztiak Beraren bidez
eta Berarentzat dira eginak.
Diren guztiak baino lehenago da Bera,
eta guztiek Berarengan diraute.
Gorputzaren buru ere Bera da,
Elizaren buru, alegia.
Bera da hasiera, hilen arteko lehen semea,
diren guztietan Bera izan dadin lehenengoa.
Jainkoaren gogoko izan baita
betearen betea Harengan egotea,
eta Haren bidez, gauza guztiak Berekin adiskidetzeari;
Haren gurutzeko odolaz bakeak eginik,
zeru-lurretan diren guztiekin.

EBANJELIOA: Lk 23, 35b-43

Aleluia: Mk 11, 10

R/. Aleluia.

V/. Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena!

Bedeinkatua, gure aita Dabidengandik
datorren erreinua! R/.

*Jauna, oroi zaitez niretz,
zeure erreinura iristean.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, herria eta agintariak keinuka ari zitzaizkion Jesusi, eta honela zioten: «Besteak salbatu dizkik; salba dezala bere burua, Jainkoaren Mesias eta Aukeratua baldin bada». Gudariak ere iseka egiten zioten, ospina emanez eta esanez: «Judutarren erregea baldin bahaiz, salbazak zeure burua». Gainean idazkun bat ipini zioten, grekoz, latinez eta heberkeraz idatzirik: HAU JUDUTARREN ERREGEA DA.

Gurutzetik zintzilik zeuden bi gaizkileetako bat, irainka ari zitzaion: «Hi ez al haiz Mesias? Salbazak heure burua eta salba gaitzak gu!» Baina besteak honela esa

zigorpe berean egonda, ez al diok beldurrik Jaungoikoari? Guk ondo merezia diagu, geure eginengatik; Honek, ordea, ez dik inolako gaitzik egin».

Gero, esan zuen: «Jesus, oroi zaitez niretaz, zeure erreinura iristean». Eta Jesusek berari: «Benetan diotsut: gaur Nirekin izango zara paradisuan».

Oparigaien gainekoa

Gizakia Zurekin baketzen duen oparia eskainiz,
apalik eskatzen dizugu, Jauna:
zure Semeak berak eman diezaiela herri guztiei
batasuna eta bakea.
Errege bizi baita.

Prefazioa

Jesu Kristo, diren guztien Errege

V/. Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

V/. Gora bihotzak.

R/. Jaunagan dauzkagu.

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Zure Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna, poz olioiz gantzutuz,
betiko apaiz eta diren guztien Errege sagaratu duzu,
gurutzeko aldarean bere burua
opari garbi eta baketzailer eskainiz,
gure erospenaren misterioa betetzeko;

eta izaki guztiak bere menpeko eginik,
Zuri, Jaun guztiz handi Horri, eskura emateko
mugarik ez daukan betiko erreinua,
egiaren eta biziaren erreinua,
santutasun eta graziaren erreinua,
zuzentasun, maitasun eta bakearen erreinua.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari goratzarre hau
beti eta beti [esaten] abesten diogu:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Betiereko biziaren ogia harturik, Jauna,
Zuri deiez gaude:
Kristo zeru-lurren Erregearen aginduak betetzea
aintzagarri daukagunok
irits dezagula
Berarekin zeruetako erreinuan beti bizitzea.
Errege bizi baita.